

Lehen zirkularra

II. biltzarra

Trantsizioko beste protagonistak: mobilizazio sozialak eta ezker erradikala

2017ko otsailaren 24-25ean [Trantsizioaren beste protagonistak](#) biltzarra egin zen Madrilen. Haren ondoren, [Altres protagonistas de la Transició](#) jardunaldiak egin ziren Bartzelonan, irailaren 26-30ean. 1970eko hamarkadan ugaritu ziren mugimendu sozialei eta proposamen iraultzaileei leku bat eskaintzea eta haien berri ematea izan zen antolatzaileen helburuetako bat, bai eta egungo demokrazia parlamentarioa ekarri zuen aldaketa politikoko prozesuaren ezaugarriei buruz gogoeta sakona egitea, kolektibo haietako askok begirada kritikoa izan baitzuten prozesu hari buruz.

Hala esperientzia militantean nola ikerketa-lanetan oinarritutako komunikazio ugariak (ehun inguru aurkeztu ziren) erakutsi zuten jakin-min handia pizten duela gaiak eta asko zabaldu direla azken urteotan gai horri buruzko ikerketak. Aurkeztutako komunikazioen edukien eta komunikazio horiek jardunaldietan antolatutako hogeita bat mahai-tailerretan eragindako eztabaiden bidez errotikako aldaketa bilatzen zuten kolektibo eta mugimenduen zeregina zein izan zen ulertu ahal izan genuen, noiz eta haien loraldi handia gertatu zen garai batean. Jorratutako edukien ugaritasunak agerian uzten duenez, asko eta asko izan ziren parte hartu zuten eragileak: langile-mugimendua, ikasle-mugimendua, auzo-elkarteak, LGTBI mugimendua, feminismoa, ekologismoa, bakearen aldeko mugimendua, antimilitarismoa, komunistak, autonomoak, libertarioak...

Madrilgo topaketa antolatu zuen batzordearen proposamenari erantzunez, eta haren espiritu eta helburuak iraunarazteko asmoz, **Trantsizioaren beste protagonistak: mobilizazio sozialak eta ezker erradikala** izenburuko II. biltzarra antolatu dugu. Biltzarra **Bartzelonan** egingo da, **2019ko urriaren 11-13an**.

Bartzelonan, 2018ko martxoan

Antolakuntza-batzordea: Ivan Bordetas, Pau Casanellas, Cristian Ferrer González, Joan Gimeno Igual, César Lorenzo Rubio, Ricard Martínez i Muntada, Carlos Ángel Ordás, Helena Saavedra Mitjans, Anna Sánchez Sorribes, Jordi Sancho, Josep Maria Solé Soldevila, Enrique Tudela Vázquez.

Batzorde zientifikoa: David Beorlegui, Claudia Cabrero Blanco, Montse Cervera, Brice Chamouleau, Eva Fernàndez, Meritxell Ferré Baldrich, Enrique González de Andrés, Martí Marín, Sara Martín Gutiérrez, Jordi Mir Garcia, Justa Moreno, Mónica Moreno Seco, Pedro Oliver Olmo, Jaime Pastor, Pablo Sánchez León, Aránzazu Sarria Buil, Gonzalo Wilhelmi.

Laguntzaileak: Fundació Salvador Seguí, Ateneu Popular de 9 Barris, Centre d'Estudis sobre Dictadures i Democràcies (CEDID-UAB), Centre d'Estudis sobre Moviments Socials (CEMS-UPF).



<https://congrestransicio2019.wordpress.com/>